


Euskal AEko eraikuntzaren sektorea % 7,9 hazi zen 2005eko lehenengo hiruhilekoan

Eraikuntza azpisektorea % 9,9 hazi zen eta obra zibila % 3,5

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2005eko lehenengo hiruhilekoan, lan-egutegi homogeneoan % 7,9 hazi zen, termino nominaletan, Euskal AEko eraikuntzako jarduera, 2004ko hiruhileko beraren aldean.

Hiruhilekoak euren artean alderagarriak izan daitezzen urtaroen eraginak zuzenduta, aurtengo lehenengo hiruhilekoan eraikuntzaren jarduera % 3,5 hazi zen 2004ko azken hiruhilekoaren aldean, eta %1,6koa izan zen aurreko hiruhileko arteko tasa gainditu zuen.

Euskal AEko Eraikuntzaren Kointurako Indizearen urte arteko hiruhilekoko hazkunde zuzendua



Iturria: Eustat

Eraikuntza-sektorearen bilakaera positiboa, 2005eko lehen hiruhilekoan, gehiago oinarritu zen *eraikuntza* azpisektorean, *obra zibila* azpisektorean baino. Izan ere, lehenak urte arteko % 9,9ko igoera izan zuen, eta bigarrenak, berriz, % 3,5ekoa, lan-egutegiaren eraginak zuzendu ostean.

Hiruhileko arteko terminoetan, 2005eko lehenengo hiruhilekoko sektorearen jardura 2004ko azkeneko hiruhilekoan izandakoarekin alderatuta, *eraikuntza* azpisektoreak % 3,7ko bilakaera positiboa izan zuen eta *obra zibilak* % 3,3koa, urtaroen eraginak zuzenduta.

2005eko lehenengo hiruhilekoan, eraikuntzaren sektoreko enplegua % 0,3 gehitu zen, datu gordinetan, aurreko urteko hiruhileko berdinarekin aldean, eta % 0,1eko hiruhileko arteko hazkundera lortu zuen 2004ko azkeneko hiruhilekoaren aldean, hiruhilekoko datuak urtaroen eraginez zuzendu ondoren.

Taula: 2005eko 1. hiruhilekoa. Euskal AEko Eraikuntzaren Koiuntura Indizearen aldakuntza-tasak (%).

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	1.hir.05/1.hir.04	At/At-1 (1)	1.hir.05/4.hir.04	4.hir.04/3.hir.04
Produkzioaren indizea	7,9	7,9	3,5	1,6
Eraikuntza	9,9	9,9	3,7	0,1
Obra zibila	3,5	3,5	3,3	4,8
Landunen indizeak	-	-	0,1	-0,1

(1) t urteko urtariletik t urteko azken hiruhilekora arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi beraren aldean

Iturria: Eustat

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00 Faxe: +34-945 01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Perez Aja

Tel.: +34-945 01 75 06. Faxe: +34-945 01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp